

ZABOR BILKETAGATIKO TASA ETA UR HORNIDURA ETA SANEAMENDUAGATIKO TASAREN KUOTA ORDAINTZEKO LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK	BASES QUE RIGEN LAS AYUDAS PARA EL PAGO DE LA TASA POR RECOGIDA DE BASURAS Y LA CUOTA DE LA TASA DE SUMINISTRO DE AGUA Y SANEAMIENTO
Oinarri hauen xedea da arautzea egoera ekonomiko larrian dauden familietatik jarraian adieraziko diren artikuluetan zehaztutako baldintzak betetzen dituzten horientzat 2025an norgehiagokako araubidean emango diren diru laguntzak, Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.	El objeto de las bases es regular las ayudas económicas por concurrencia competitiva del año 2025, de conformidad con las previsiones del art. 22.1 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, para las familias en situación económica de necesidad que cumplan las condiciones que se establecen en los siguientes artículos.
1. artikulua: Diru laguntzaren xedea Zabor bilketa zerbitzuagatik eta ur hornidura eta saneamendu tasei dagozkien kuoten zenbatekoak, urte honetakoak, dira laguntzaren xedea, zerga ordenantzetan xedatutakoari jarraituz. Dirulaguntzen 2024-2026 Plan Estrategikoan ezarritakoaren arabera, laguntza horiek ematearen helburua premia ekonomikoko egoeran dauden pertsonen laguntzea da.	Artículo 1: Objeto de la ayuda. El objeto de la ayuda estará constituido por el importe de las cuotas de las tasas por la prestación de Servicio de Recogida de Basuras y del Suministro de Agua y Saneamiento del año en curso conforme a la previsión de las Ordenanzas Fiscales correspondientes. El objetivo de la concesión de estas ayudas, según se establece en el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2026 es ayudar a personas en situación económica de necesidad.
2. artikulua. Izaera eta ezaugarriak Laguntza hauek diru laguntza izaera dute eta, hala badagokio, bizikidetzaren unitateak helburu bera betetzeko asmoz lor ditzakeen beste laguntza batzuen ordezkio edo osagarri izan daitezke. Diru laguntza besterenezina da, ezin daiteke betebeharren berme gisa eskaini, eta ezin da hura osorik edo haren zati bat laga.	Artículo 2: Naturaleza y características. Estas ayudas tienen carácter subvencional, subsidiario y, en su caso, complementario de otras ayudas a las que la Unidad Convivencial pudiera acceder con la misma finalidad. Es intransferible y no puede ofrecerse en garantía de obligaciones, ni ser objeto de cesión total o parcial.
3. artikulua: Pertsona onuradunak Diru laguntza hauen onuradun izango dira honako baldintza hauek betetzen dituzten bizikidetzaren unitateak, Inklusiorako eta Diru-Sarrerak bermatzeko Euskal Sistemaren 14/2022 legeko 25. artikuluari jarraituz: 1. 2024ko abenduan Gizarte Larrialdiko Laguntzen (aurrerantzean, GLL) edo Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (aurrerantzean, EPO) onuradun izatea. 2. Bizikidetzaren unitateko kide bat unitate hori bizi ohi den etxebizitzari dagokion Zerga Bilketa eta Ur	Artículo 3: Personas Beneficiarias. Serán beneficiarias de estas Ayudas aquellas Unidades Convivenciales -art. 25 de la Ley 14/2022 del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión- que: 1.- Hayan sido beneficiarias de Ayudas de Emergencia Social (en adelante AES) y/o de la Prestación Complementaria de vivienda –en adelante PCV- en el mes de diciembre del año 2024. 2.- Uno de sus miembros sea contribuyente de la Tasa de Servicio de Recogida de Basuras, Suministro de

Hornidura eta Saneamendu zerbitzuengatik tasaren zergaduna izatea. Zergaduntzat hartuko da Donostiako Udaleko ordainagiriaren titular den pertsona hura. Diru laguntza hauen onuradun izan daitezke, baita ere, zabor bilketa, ur hornidura eta saneamenduagatik tasa ordaintzen duen kiderik ez duten bizikidetza unitateak, baldin eta tasa horiei dagozkien gastuak zeharka jasaten badituzte eta hala egiaztatzen badute dagozkien argiren bidez. 3. 2025ko ekainaren 1ean errolda eta bizikidetza, laguntza eskatzen den helbidean edukitzea. 4. Donostiako Udalarekiko zerga betebeharrak guztiak egunean izatea. 5. Ez izatea kontzeptu horregatik guztizko salbuespenik. 6.- Tasa hauen gastuak komunitate-kontadoreen bidez ordain tzen diren kasuetan, ordainagiri horien titularra jabekideen erkidegoa denean: a) Alokairu erregimenean dauden per tso nak gastu hauek ordain tzen dituztenean, egiaztatu beharko dute, bere izenean dagoen edo bere kontu korrontean helbideratuta dagoen ordainagiri bat aurkeztuz, gastu horiek ordain tzen ari direla. b) Jabeen kasuan, egiaztatu gabe ordainduko da.	Agua y Saneamiento, de la vivienda en la que reside habitualmente la Unidad Convivencial. Se entenderá que es contribuyente la persona que consta como titular del recibo en el Ayuntamiento de San Sebastian. También podrán beneficiarse de estas ayudas aquellas Unidades Convivenciales que aunque no cuenten con un miembro contribuyente de las Tasas de Servicio de Recogida de Basuras, Suministro de Agua y Saneamiento soporten los gastos de estas tasas de forma indirecta y así lo acrediten documentalmente. 3.- Tengan su empadronamiento y residencia en el domicilio para el pago de cuyos recibos se concede la ayuda con fecha 01 de junio de 2025. 4.- Se encuentren al corriente del pago de todas sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento de San Sebastian. 5.- No tengan exención total por este concepto. 6.- En el caso de que los gastos referentes a estas tasas se abonen mediante contador comunitario, en los que es la comunidad de propietarios titular de dichos recibos: a) Las personas en régimen de arrendamiento que abonan estos gastos deberán acreditar, mediante la presentación de un recibo de abono a su nombre o domiciliado en su cuenta, el estar haciéndose cargo de dichos gastos. b) En el caso de personas propietarias, se procederá al abono sin necesidad de acreditación.
4. artikulua: Diru laguntzaren zenbatekoa Diru laguntzaren zenbatekoa zabor eta ur eta saneamendu tasen kuoten bestekoa izango da, eta, bizikidetza unitate onuradunaren zerga betebeharrak zein diren, badago aukera kontzeptuetako batengatik edo bi kontzeptuengatik jasotzeko diru laguntza. Baldin onuraduna tasa horien zati bat ordaintzetik salbuetsita badago, kuotaren zenbatekoaren eta salbuetsitako zenbatekoaren arteko aldea ordainduko da. Emango den diru laguntza ez da kuota baino handiagoa izango, inola ere ez.	Artículo 4: Cuantía de la ayuda. La subvención tendrá una cuantía equivalente al importe de las cuotas de las tasas de Basura y de Agua y Saneamiento, pudiéndose percibir la ayuda sólo por uno de los conceptos o por ambos, dependiendo de las obligaciones tributarias de la Unidad Convivencial beneficiaria. En los casos de exención parcial, se abonará por la diferencia entre el importe de la cuota y la cuantía de la exención. En ningún caso la ayuda a conceder podrá superar la cuantía de la cuota.

5. artikulua: Prozedura 1. Baldin bizikidetza unitateak diru laguntza jasotzeko baldintzak betetzen baditu, ur edota zabor tasen zuzeneko zergadun baldin bada, gastua helbideraturik baldin badu hura titular duen kontu batean, eta kontu hori Gizarte Ekintzako datu basean baldin badago, kontu horretan ordainduko da, zuzenean, tasen zenbatekoa, eta ez da beharrezkoa izango aldez aurretik eskatzea, behin udal zerbitzuek baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren. 2. Bizikidetza unitateak aurreko zenbakian adierazitakoa betetzen baldin badu baina ez baldin baditu laguntzak helbideratu Gizarte Ekintzan jasota dagoen kontuan, eskaera bat egin beharko du eta bertan adierazi zer kontu zenbakitan nahi duten aipatu diru sarrera egitea. 3. Bizikidetza unitateak betetzen baldin baditu diru laguntza eskuratzeko baldintzak eta zergadun bezala agertzen ez baldin bada ere gastua bere gain hartzen baldin badu, diru laguntzak ordaintzeko eskaera egin beharko du, aldez aurretik. Eskaera hori egitean, interesdunak egiaztatu beharko du bere gain hartzen ari dela, zeharka eta osorik, zabor bilketako zerbitzuaren, ur horniduraren eta saneamenduaren tasen gastuak. 4. Gizarte Ongizateko Zuzendaritzako gizarteratze zerbitzuko atalburua arduratuko da oinarri hauetan jasotako prozedurak bideratzeaz.	Artículo 5: Procedimiento. 1.- En el caso de Unidades Convivenciales que, cumpliendo los requisitos de acceso y siendo contribuyentes directos de las tasas de agua y/o basuras, tengan el gasto domiciliado en una cuenta de su titularidad que conste en la base de datos de Acción Social, se procederá a hacer directamente un abono en dicha cuenta por la cuantía de las tasas sin necesidad de solicitud previa, una vez comprobado el cumplimiento de requisitos por los servicios municipales. 2.- En el caso de Unidades Convivenciales que, estando en el supuesto anterior, no tengan las ayudas domiciliadas en la cuenta que consta en Acción Social, deberán hacer una solicitud en la que deberán acreditar el número de cuenta en que desean que se les haga dicho ingreso. 3.- En el caso de Unidades Convivenciales que, cumpliendo los requisitos de acceso, no constan como contribuyentes pero soportan el gasto, el abono de las ayudas se efectuará previa solicitud, en la que se deberá acreditar que están soportando, de forma indirecta y en su totalidad los gastos de las tasas de Servicio de Recogida de Basuras, Suministro de Agua y Saneamiento. 4.- La instrucción de los procedimientos contemplados en las presentes Bases corresponderá al Jefe de servicio de Inserción Social de la Dirección de Acción Social.
6 artikulua: Eskaera 1. Kide zergadunik izan ez arren gastua jasaten ari den bizikidetza unitate onuradunak eskaera aurkeztu beharko du. Eskaerak Donostiako Udalaren eskaera ereduari jarraituz aurkeztu beharko dira. 2. 30 egun balioduneko epea izango da eskaerak aurkezteko, oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. 2. Eskaerarekin batera, bizi diren higiezinako zabor bilketa, ur hornidura eta saneamenduagatikoko tasak zeharka ordaintzen dituztela zalantzarik utzi gabe egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte, 7. artikuluan adierazi bezala.	Artículo 6: Solicitud. 1.- Las Unidades Convivenciales beneficiarias que carecen de un miembro contribuyente pero soportan el gasto, deberán presentar la solicitud. Las solicitudes se presentarán en el modelo de solicitud general del Ayuntamiento de San Sebastián. 2- El plazo de presentación de solicitudes comienza al día siguiente al de la publicación de las presentes Bases en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y finalizará en 30 días hábiles. 2.- La solicitud deberá acompañarse con la documentación que se especifica en el artículo 7 para acreditar de forma inequívoca el pago de forma indirecta de las tasas del Servicio de Recogida de Basuras, Suministro de Agua y Saneamiento del inmueble en el que residen.

3. Orriak, behar bezala beteta, telematikoki edo aurrez aurre aurkeztu ahal izango dira. Ahal dela, telematikoki aurkeztuko dira, udalaren web orriaren bitartez, eta hor adierazitako baldintzak betez: <u>ESKAERAK</u> Behar bezala betetako eskabide orriak aurrez aurre izapidetzeko, horiek Donostiako Udalaren edozein erregistrotan entregatuko dira. 4. Eskakerak aurkeztu ahal izango dira, baita ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan xedaturiko beste ezein bitartekoren bidez.	3.- Los impresos debidamente cumplimentados podrán presentarse de forma telemática o presencial. Se presentarán, preferentemente, por el canal telemático a través de la web municipal conforme a los requerimiento en ella establecidos: <u>SOLICITUDES</u> Para la tramitación presencial las solicitudes debidamente cumplimentadas se entregarán en cualquiera de los registros del Ayuntamiento de San Sebastián. 4.- Las solicitudes podrán igualmente presentarse a través de cualquiera de los medios previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
7. artikulua: Dokumentuak Alokairu kontratua izango da pertsona eskatzailea gastua zeharka jasaten ari dela egiaztatzen duen agiria, baldin eta hartan adierazten bada, idatziz eta zalantzarik utzi gabe, gastu horiei aurre egiteko betebeharra duela. Alokairua errenta zaharrekoa izan eta, ondorioz, eskatzaileak ez baldin badu alokairu kontratu horren kopiarik, gastu horiek ordaindu dituela frogatzen duten ordainagiriak aurkeztu beharko dira. Interesdunek baldintzak betetzen dituztela egiaztatuko du Administrazioak, betiere interesdunek horretarako baimena eman ondoren.	Artículo 7: Documentación. La documentación que acreditará que la persona solicitante está soportando el gasto indirectamente será el contrato de arrendamiento donde conste, de manera inequívoca y por escrito, la obligación de hacer frente a estos gastos. En el caso de no tener copia de dicho contrato de alquiler, por tratarse de un alquiler de renta antigua, recibos que acrediten haber abonado dichos gastos. La Administración, previo consentimiento de los interesados, verificará y comprobará el cumplimiento de los requisitos de los interesados.
8. artikulua: Ebazpena Diru laguntzak eman edo ukatzeko organo eskuduna Donostiako Udaleko Gobernu Batzarra da, organo horrek eskumen hori beste baten esku utzi badezake ere. Laguntza emateko edo ukatzeko erabakia jakinarazteko, hura Donostiako Udaleko iragarki oholean argitaratu eta jendaurrean izango da 15 egunez. Argitaratze horrek jakinarazpena ordezkatzeko du, eta haren ondorio berberak izango ditu; halaxe xedatu baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 45.1 artikuluan. Aipatu iragarki oholean jartzen denean, laguntzaren eskatzaileak NANaren edo AIZren bidez identifikatuko dira.	Artículo 8: Resolución. El órgano competente para resolver la concesión o denegación de las ayudas es la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de San Sebastián, sin perjuicio de la posible delegación de su competencia. La concesión o denegación de la ayuda se notificará mediante su publicación y exposición pública en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento de San Sebastián durante 15 días. De conformidad con con el artículo 45.1. de la LPAC, dicha publicación sustituirá a la notificación surtiendo sus mismos efectos. A efectos de la exposición en el citado Tablón, la identificación de los solicitantes de la subvención se realizará a través de su nº de D.N.I. o N.I.E.

9. artikulua: Prestazioa sortzea eta ordaintzea Artikulu hauetan ezarritakoaren arabera erabakitako diru laguntzaren zenbateko osoa diru laguntza ematea onartzen den unean ordainduko da.	Artículo 9: Devengo y pago de la prestación. El pago del importe total de la ayuda determinada de conformidad con lo dispuesto en estos artículos se efectuará en el momento de la concesión de la subvención.
10. artikulua: Erreklamazioetarako epea Erabakiak edo, hala badagokio, ebazpenak amaiera ematen dio bide administratiboari, eta haren aurka, berraztertzeo aukerako errekurtsua jarri ahal izango zaio erabaki hori hartu edo ebazpen hori eman zuen organoari, hilabeteko epean, edo, bestela ere, administrazioarekiko auzi errekurtsua, bi hilabeteko epean, erabakia edo ebazpena Donostiako Udaleko iragarki oholean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, biak ere.	Artículo 10: Plazo de reclamaciones. El acuerdo, o, en su caso, la resolución, pondrán fin a la vía administrativa, pudiendo interponerse contra el/la mismo/misma, con carácter potestativo, recurso de reposición, ante el órgano que lo acordó/dictó en el plazo de un mes, o directamente recurso contencioso administrativo en el plazo de dos meses, contados ambos plazos desde el día siguiente a su publicación en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento de San Sebastián
11. artikulua: Behar ez bezala jasotako zenbatekoak itzultzea Udalak egiaztatzen baldin badu norbaitek diru laguntza jaso duela hura eskuratzeko bete behar diren baldintzak bete gabe, behar ez bezala jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira, dagokion itzulketa prozeduraren bitartez.	Artículo 11: Reintegro de cuantías indebidamente percibidas. Si el Ayuntamiento comprobara que se hubiera obtenido la ayuda sin reunir los requisitos necesarios para su obtención, procederá la devolución de las cantidades percibidas indebidamente a través del correspondiente procedimiento de reintegro.
12. artikulua: Araubide juridikoa Deialdi honetan ezarritako diru laguntzak honako hauek arautuko dituzte: oinarri hauek, Diru Laguntzen Lege Orokorrak (azaroaren 17ko 38/2003 Legeak), eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak. Era berean, araudi horretan xedaturik ez dagoena arautzeko, lege hauek aplikatuko dira: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa; eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.	Artículo 12: Régimen Jurídico. Las subvenciones establecidas en la presente convocatoria se regirán por lo dispuesto en estas bases; por la Ley General de Subvenciones 38/2003, de 17 de noviembre; y por el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio. Así mismo, y en lo no previsto en dicha normativa, serán de aplicación las Leyes 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.